

68E/2025 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparru sozioekonomikoan euskara sustatzeko zerbitzua kontratatzeko esleipen-prozedura bete gabe uzten duena.

ERREFERENTZIA:	Espedientearen kodea: 0005-CP01-2025-000034
UNIDADE KUDEATZAILEA	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoaren Atala Tel.: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002 Iruña Helbide elektronikoa: sustapena@navarra.es

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 28ko 34E/2025 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko jarduerak kontratatzeko espediente onartu zen, esleipen-prozedura irekitzea xedatu zen eta 70.000 euroko gastua baimendu zen.

Euskarabideak hasiera eman zion Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 72. artikuluan aurreikusitako prozedura irekiari.

Kontratuaren balio zenbatetsia 119.008,28 eurokoa izan zen, BEZik gabe, eta lau lotetan banatu zen.

Lizitazio-iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu zen, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko irailaren 10ean amaitu zen.

Aurkezteko epea amaituta, ez zen eskaintzarik egon 3. eta 4. loteetarako. Bestalde, Euskaraz Koop. Sozietateak 1. loterako eskaintza aurkeztu zuen eta Bai Euskarari Elkarteak 2. loterako.

Kontratazio Mahaia 2025eko irailaren 11n bildu zen eta administrazio-dokumentazioa ireki zen, zuzena zela iritzita. Irizpide kualitatiboak aplikatuta baloratu beharreko



dokumentazioa jasotzen zuten gutun-azalak ere ireki ziren, eta kontratua kudeatzen duen unitateari eman zitzaion dokumentazio hori baloratzeko ardura.

Agiriak aztertu ondoren, irailaren 25ean, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen Euskaraz Koop. Sozietateak aurkeztutako eskaintza baztertzea 13.1.b atalean eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik. Bai Euskarari Elkartearena ere baztertu zen B gutun-azalean eskaintza ekonomikoari buruzko informazioa sartzeagatik.

Euskara Planifikatu eta Sustatzeko Zerbitzuak aurkeztutako txostena ikusita, eta kontratazio-organoak esleipen-prozedura hutsik uzteko duen aukerarekin bat etorritik, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honako hau

Euskara Planifikatu eta Sustatzeko Zerbitzuak aurkeztutako txostena ikusita, eta kontuan hartuta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan aurreikusten dela kontratazio-organoak esleipen-prozedura hutsik uzteko aukera duela, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko jarduerak egiteko esleipen-prozedura hutsik uztea.
2. 2025eko gastuen aurrekontuko "Arlo sozioekonomikoa sustatzeko programak" izeneko B30002 B3200 2279 334102 partidaren gastua ezeztatzea eta erreserbatik 70.000 euro askatzea; halaber, 2026ko gastu-aurrekontuari dagokion aurrekontu-partida baliokidearen kargutik beste 74.000 euro, BEZa barne, askatzea.
3. Ebazpen hau Bai Euskarari Elkarteari eta Euskaraz Kooperatiba Elkarteari jakinaraztea, eta Memoria eta Bizikidetzara, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuko kontu-hartzailetzara, departamentu horretako Idazkaritza



Tekniko Nagusira eta haren Kontabilitate Zentrora, Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera igortzea, dagozkion ondorioetarako.

4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

**EUSKARABIDEA – EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA**

Javier Arakama Urtiaga



CSV: **1F6BB4F0D60D77EC**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2025-11-05 10:30:49